



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea/Vocal

Imanol Zubizarreta Arteché

**Resolución 13/2022 ebazpena**

Recurso 8/2022 errekurtsua

Kidea - Idazkaria / Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

NU COMUNICACIÓN SLL enpresak kontratazio alorreko errekurtsu berezia aurkeztu zuen bere proposamena ondorengo kontratuaren adjudikazio prozeduratik kanpo uzteko erabakiaren aurka: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak TicketBAI sistemaren inguruan burutzeko komunikazio kanpainaren hedapenerako edukiak diseinatu, sortu eta ekoizteko zerbitzua (H22003 espedientea). Horri dagokionez, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaur egindako bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, honako erabaki hau hartu du, aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por NU COMUNICACIÓN S.L.L. contra la exclusión de su proposición del procedimiento de adjudicación del contrato para la realización del diseño, creatividad y producción de contenidos para la difusión de la campaña de comunicación que se realice sobre el sistema TicketBAI por el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa (expediente H22003), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

**AURREKARIAK**

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**LEHENENGOA.-** 2022ko maiatzaren 12an, Auzitegiaren erregistro elektronikoa idazki bat sartu zen. Idazki horren bidez, NU COMUNICACIÓN SLL enpresak kontratazio alorreko errekurtsu berezia jarri zuen bere proposamena ebazpen honen goiburuan aipatutako kontratua adjudikatzeko prozeduratik kanpo uztearen aurka. Errekurtsu hori 8/2022 zenbakiarekin erregistratu zen.

**PRIMERO.-** El día 12 de mayo de 2022 tuvo entrada en el registro electrónico del Tribunal un escrito por el que NU COMUNICACIÓN S.L.L. interpone recurso especial en materia de contratación contra la exclusión de su proposición del procedimiento de adjudicación del contrato mencionado en el encabezamiento de esta resolución; recurso que quedó registrado con el número 8/2022.

**BIGARRENA.-** Hasierako idazkian aurkitutako akatsak zuzendu ondoren, Auzitegiak Ogasun eta Finantza Departamentuari bidali zion errekurtsua, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio espedientea eta dagokion txostena eskatu zizkion, eta maiatzaren 19an jaso ziren.

**SEGUNDO.-** Una vez subsanados los defectos advertidos en el escrito inicial, el Tribunal remitió el recurso al Departamento de Hacienda y Finanzas y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe, que se recibieron el 19 de mayo.

**HIRUGARRENA.-** SPKLren 56.3 artikulua

**TERCERO.-** En cumplimiento del artículo 56.3



arabera, DIMENSIÓN EX AGENCIA DE PUBLICIDAD SLU enpresari eman zitzaion errekurtsoaren berri, bost egun balioduneko epean alegazioak egin zitzaion. Maiatzaren 26an eman zion sarrera Auzitegiko erregistroan alegazioen idatziari.

LCSP, se dio traslado del recurso a DIMENSIÓN EX AGENCIA DE PUBLICIDAD, S.L.U. para que en el plazo de cinco días hábiles pudiera formular alegaciones. Las presentó mediante escrito que tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 26 de mayo.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Errekurtsoaren onargarritasuna

### Admisibilidad del recurso

#### LEHENENGOA.- Xedea.

#### PRIMERO.- Objeto.

Errekurtsoa jarri da lizitatzailerik bat zerbitzu kontratu baten adjudikazio prozeduratik kanpo uzteko erabakiaren aurka (balio zenbatetsia: 120.000 euro).

El recurso se interpone contra la exclusión de un licitador del procedimiento de adjudicación de un contrato de servicios que tiene un valor estimado de 120.000 euros.

Beraz, errekurritutako egintzaren aurka kontratazio alorreko errekurtso berezi bat aurkez zitekeen, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikulua, 1 a) eta 2 b) apartatuetan.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1 a) y 2 b) del artículo 44 LCSP.

#### BIGARRENA.- Eskumena.

#### SEGUNDO.- Competencia.

Errekurtso hau ebazteko eskumena Auzitegi honi dagokio, hala agintzen baitu 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duenak, 2.1 artikuluan.

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

#### HIRUGARRENA.- Epea

#### TERCERO.- Plazo.

Errekurtsoa SPKLren 50.1.c) artikuluan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartuta errekurritutako akordioa maiatzaren 12an jakinarazi zela.

El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.c) LCSP, si se tiene en cuenta que el acuerdo recurrido fue notificado el día 12 de mayo.

#### LAUGARRENA.- Legitimazioa.

#### CUARTO.- Legitimación.

Errekurtsoa jartzeko legitimazioa du errekurtsogileak, SPKLren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, parte hartu duen lizitazio batetik kanpo uztea aurkaratzen baitu.

La recurrente está legitimada para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, dado que impugna su exclusión de una licitación a la que ha concurrido.



### Auziaren mamia

### Fondo del asunto

#### **BOSGARRENA.- Errekurritutako jarduketa.**

#### **QUINTO.- La actuación recurrida.**

2022ko martxoaren 15eko foru aginduaren bidez, Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak TicketBAI sistemaren inguruan burutzeko komunikazio kanpainaren hedapenerako edukiak diseinatu, sortu eta ekoizteko kontratazio espedientea (H22003 espedientea), bai eta kontratazioa arautu behar duten administrazio klausula partikularren agiria (AKPA) eta preskripzio teknikoaren agiria (PTA) ere. Halaber, kontratua adjudikatzeko prozedura irekiari hasiera ematea xedatu zuen.

Por orden foral de 15 de marzo de 2022 el diputado foral de Hacienda y Finanzas aprobó el expediente de contratación para la realización del diseño, creatividad y producción de contenidos para la difusión de la campaña de comunicación que se realice sobre el sistema TicketBAI por el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa (expediente H22003), así como el pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP) y el de prescripciones técnicas (PPT) que han de regir la contratación. Dispuso asimismo la apertura del procedimiento abierto para su adjudicación.

Iragarkia 2022ko martxoaren 15ean bertan argitaratu zen Kontratazio Publikoa Euskadin plataformako kontratatzailearen profilean.

El anuncio se publicó el mismo día 15 de marzo de 2022 en el perfil de contratante alojado en la Plataforma Contratación Pública en Euskadi.

Baldintza agiriek ezartzen dute kontratua adjudikatuko dela balio judizio bidez ebaluatu beharreko irizpide baten arabera (zerbitzuaren planteamendu teknikoaren proposamena, gehienez 49 puntu) eta formulak aplikatuz ebaluatu daitekeen irizpide baten arabera (prezioa, gehienez 51 puntu).

Los pliegos establecen que el contrato se adjudique en función de un criterio a evaluar mediante juicio de valor (propuesta de planteamiento técnico del servicio, hasta 49 puntos) y de un criterio evaluable mediante la aplicación de fórmulas (el precio, hasta 51 puntos).

Kontratuaren prezioa zehazteko sistema honako hau da: publizitate euskarri desberdinei dagozkien pieza edo material bakoitzeko unitateko prezioak.

El sistema de determinación del precio del contrato es el de precios unitarios por cada una de las piezas o materiales correspondientes a los distintos soportes publicitarios.

AKPAren ezaugarrien taulako 19.2 atalaren arabera, edozein kontzeptutan eskainitako prezioetako bat lizitaziokoa baino handiago bada, enpresaren proposamena osorik baztertuko da, eta, beraz, lizitaziotik kanpo geratuko da.

Según el apartado 19.2 del cuadro de características del PCAP, si uno de los precios ofertados de cualquiera de los conceptos excede del de licitación, la propuesta de la empresa se desechará en su totalidad, quedando, por tanto, fuera de la licitación.

Bi enpresak aurkeztu zuten eskaintza: DIMENSIÓN EX AGENCIA DE PUBLICIDAD SLU eta NU COMUNICACIÓN SLL.

Presentaron oferta dos empresas, DIMENSIÓN EX AGENCIA DE PUBLICIDAD, S.L.U. y NU COMUNICACIÓN, S.L.L.



Apirilaren 29an, mahaiak onartu zituen balio judizioari lotutako irizpideen balorazioaren ondoriozko puntuazioak, eta HIRU zenbakidun artxibo elektronikoak ireki zituen (eskaintza ekonomikoa). Hona hemen emaitza:

El 29 de abril la mesa aprobó las puntuaciones resultantes de la valoración de los criterios sujetos a juicio de valor y procedió a la apertura de los archivos electrónicos nº TRES (oferta económica), con el siguiente resultado:

	Kontzeptua / Concepto	<b>Gehienezko banakako lizitazio prezioa (BEZa gabe)</b>  <b>Precio unitario máximo de licitación (IVA no incluido)</b>	<b>DIMENSIÓN EX AGENCIA</b> Banakako prezioaren eskaintza (BEZa gabe) Oferta precio unitario (IVA no incluido)	<b>NU COMUNICACIÓN</b> Banakako prezioaren eskaintza (BEZa gabe) Oferta precio unitario (IVA no incluido)
1	Idea sortzailea / Idea Creativa	<b>2.500,00 €</b>	2.250,00 €	1.875,00 €
2	Irratiko iragarkiak / Cuñas de radio	<b>450,00€</b>	315,00 €	2.520,00 €
3	Prentsa idatzirako iragarkia / Anuncio prensa escrita	<b>800,00 €</b>	560,00 €	4.000,00 €
4	Prentsa idatzirako iragarkia egokitzea / Adaptación de anuncio de prensa escrita	<b>100,00 €</b>	50,00 €	1.600,00 €
5	Prentsa idatzirako iragarkia prensa digitalera egokitzea / Adaptación de anuncio de prensa escrita a prensa digital	<b>100,00 €</b>	50,00 €	1.600,00€
6	Kanpoaldean jartzeko iragarkia / Anuncio para exteriores	<b>800,00 €</b>	560,00 €	4.000,00€
7	Kanpoalderako iragarkia egokitzea / Adaptación anuncio para exteriores	<b>100,00 €</b>	50,00 €	500,00€
8	Kanpoalderako iragarkia inprimatzea / Impresión anuncio exteriores	<b>10,00 €</b>	5,00 €	1.800,00€
9	Tolesgarria (roll-up) / Desplegable (roll-up)	<b>350,00 €</b>	297,50 €	350,00 €
10	Bannerra / Banner	<b>200,00 €</b>	170,00 €	600,00 €
11	Bannerra egokitzea / Adaptación banner	<b>60,00 €</b>	36,00 €	360,00 €
12	Sare sozialetarako eduki esportagarria, hainbat tamainatara / Contenido para redes sociales con exportación a varios tamaños	<b>100,00 €</b>	60,00 €	600,00 €
13	Liburuxka zabalgarria (diptikoa edo antzekoa) / Folleto desplegable (díptico o similar)	<b>800,00 €</b>	680,00 €	1.280,00 €
14	Irudi bankuaz baliatzen den bideoa (irudien erosketara barne), formatu desberdinetara egokitua eta bi hizkuntza ofizialetan / Vídeo utilizando banco de imágenes (incluyendo compra de imágenes), incluida su adaptación a distintos formatos y en ambos idiomas oficiales	<b>10.000,00 €</b>	7.500,00 €	15.000,00 €
15	Bideoa eta filmaketa lana (irudi eskubideak, jabetza intelektual eta	<b>30.000,00 €</b>	16.500,00 €	18.000,00 €



	industrialekoak eta abar barne), formatu desberdinetara egokitua, eta bi hizkuntza ofizialetan / Vídeo incluyendo rodaje (incluyendo derechos de imagen, de propiedad intelectual e industrial, etc.), incluida su adaptación a distintos formatos y en ambos idiomas oficiales			
16	TBAI sistemaren diseinua eta edukia Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean, bi hizkuntza ofizialetan / Diseño y contenido del sistema TBAI en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas en ambos idiomas oficiales	1.000,00 €	850,00 €	1.500,00 €

NU COMUNICACIÓN SLL enpresak eskaintako unitateko prezioetatik (16) hamahiruk gainditzen zitzuten gehieneko unitateko prezioak, AKPAren ezaugarrien taulako 19.2 atalean aurreikusitakoaren arabera, mahaiak erabaki zuen haren eskaintza ezestea eta DIMENSIÓN EX AGENCIA DE PUBLICIDAD SLU enpresari kontratua adjudikatzeko proposamena egitea.

Maiatzaren 12an jakinarazitako erabaki horren aurka, NU COMUNICACIÓN SLL enpresak errekurtso hau aurkeztu du.

### SEIGARRENA.- Eztabaida.

Errekurtsogileak alegatu du aurkeztu zituen prezioak 2022an eta 2023an garatu beharreko unitate guztiei dagozkiela (ez dira unitateko prezioak), eta kontratazioa justifikatzeko memoriaren I. eranskinean planteatutako kasuari erantzuten diotela.

Bere esanetan, NU COMUNICACIÓN SLL enpresak aurkeztutako guztizko eskaintza 55.585 eurokoa da, eta DIMENSIÓN EX AGENCIA DE PUBLICIDAD SLUK aurkeztutakoa, berriz, 66.347 eurokoa. Eta kontuan hartuta, batetik, eskaintza hori ez dela hain lehiakorra, eta, bestetik, formula bidez ebaluatu ezin diren adjudikazio irizpideen balorazioan errekurtsogileak 46 puntu lortu dituela eta lehiakideak 33, amaitzeko eskatzen du berrikusteko kontratuaren adjudikazioa.

Dado que trece de los dieciséis precios unitarios ofertados por NU COMUNICACIÓN, S.L.L. exceden de los precios unitarios máximos, la mesa acordó, conforme a lo previsto en el apartado 19.2 del cuadro de características del PCAP, rechazar su propuesta y proponer la adjudicación del contrato a la empresa DIMENSIÓN EX AGENCIA DE PUBLICIDAD, S.L.U.

Frente al citado acuerdo, que le fue notificado el 12 de mayo, NU COMUNICACIÓN, S.L.L. ha interpuesto el presente recurso.

### SEXTO.- La controversia.

La recurrente alega que los precios que presentó se refieren a unidades totales (y no unitarias) a desarrollar durante 2022 y 2023, y responden al supuesto planteado en el anexo I de la memoria justificativa de la contratación.

Sostiene que la oferta total presentada por NU COMUNICACIÓN, S.L.L. es de 55.585 euros, frente a la presentada por DIMENSIÓN EX AGENCIA DE PUBLICIDAD S.L.U., que es de 66.347 euros. Y dado que esta última es una oferta menos competitiva y que en la valoración de los criterios de adjudicación no evaluables mediante fórmulas la recurrente ha obtenido 46 puntos frente a los 33 puntos de su competidora, termina solicitando la revisión de la adjudicación del contrato.



Departamentuak errekurtsoari buruz egindako txostenak adierazten du errekurtsogileak alegatzen duen balioetsitako unitateen datua ez dagoela jasota AKPAn, ez eta PTAn ere, baizik eta kontratazioa justifikatzeko memoriaren I. eranskinean. Bertan, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren zenbatespen bat jasotzen da, 2022an kontratua formalizatzen denetik 2023ko ekainaren 30era arte eska daitezkeen zerbitzuen zenbatespen batetik abiatuta kalkulatuak.

Bere ustez, ez da bidezkoa errekurtsogileak eskaintako prezioen justifikazioa onartzea, bere eskaintzan ez baitago inolako daturik interpretatzeko eskaintako prezioak ez direla baterako prezioak. Errekurtsoan jasotako justifikazioa ez da zuzenean ondorioztatzen eskaintzatik, aldiz, bertan jasotzen ez diren elementu (unitateak) berriak sartzen ditu.

Bestalde, DIMENSIÓN EX AGENCIA DE PUBLICIDAD SLU enpresak bere alegazio idazkian adierazi duenez, errekurtsoa premisa faltsu batean oinarritzen da, eta premisa horrek talka egiten du baldintza agiriekin eta lizitazioaileek aurkeztutako eskaintzekin, inork ere ez baitu eskaini unitateko prezio guztien baturaren ondoriozko oroharreko preziorik edo prezio globalik.

Eskaintzak unitateko prezioan aurkeztu behar ziren, baina, baldintza agiriak argiak izan arren, NU COMUNICACIÓN SLL enpresak lizitazioaren gehieneko prezioa gainditzen zuen eskaintza bat aurkeztu zuen, eskaini beharreko hamasei prezioetatik hamahirutan. Beraz, alegazio jartzailearentzat agerikoa da baztertzeko arrazoia dagoela.

#### **ZAZPIGARRENA.- Auzitegiaren judizioa.**

AKPAREN ezaugarrien taulako 4. atalak honako hau dio:

*“Prezioa zehazteko sistema prezio unitarioena da, eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua kalkulatzeko, unitate*

El informe emitido por el departamento acerca del recurso señala que el dato de las unidades estimadas que alega la recurrente no consta en el PCAP ni en el PPT, sino en el anexo I de la memoria justificativa de la contratación, que contiene una estimación del presupuesto base de licitación calculada a partir de una estimación de los servicios que puedan requerirse desde la formalización del contrato en 2022 hasta el 30 de junio de 2023.

Entiende que no procede aceptar la justificación de los precios ofertados por la recurrente, ya que no hay en su oferta dato alguno que lleve a interpretar que los precios ofertados no son unitarios. La justificación contenida en el recurso no se deduce directamente de la oferta, sino que introduce nuevos elementos (unidades) que no se contienen en ella.

Por su parte, DIMENSIÓN EX AGENCIA DE PUBLICIDAD, S.L.U. indica en su escrito de alegaciones que el recurso se fundamenta en una premisa falsa que choca frontalmente con los pliegos y con las ofertas presentadas por las licitadoras, ya que ninguna ha ofertado un precio alzado o global resultante de la suma de todos los precios unitarios.

Las ofertas había que presentarlas por precios unitarios, pero a pesar de la claridad de los pliegos, NU COMUNICACIÓN, S.L.L. presentó una oferta que superaba el precio máximo de licitación en trece de los dieciséis precios a ofertar, por lo que, para la alegante, la concurrencia de la causa de exclusión resulta evidente.

#### **SÉPTIMO.- El juicio del Tribunal.**

El apartado 4 del cuadro de características del PCAP dice lo siguiente:

*“El sistema de determinación del precio es el de precios unitarios y el presupuesto base de licitación se ha calculado*



*orientagarri batzuk hartu dira kontuan.*

[...]

*Prezio unitario horiek publizitate-euskarrietan hedatzeko pieza edo material bakoitzari egokitzen zaizkio, eta prezioan horretan barne daude sormena, diseinua eta ekoizpena eta inprimaketa ere, hala dagokionean, eskatzen den euskarrirako entregatu arte, ondoren azaltzen den banakapenarekin: [...].”*

Eskaintza ekonomikoak AKPAren IX. eranskinean agertzen den ereduaren arabera izan behar zuen. Eredu horretan, lizitatuak **“Banakako prezioaren eskaintza (BEZa gabe)”** izeneko lauki bat bete behar zuten. IX. eranskinean bertan, honako hau nabarmentzen da letra lodiz: **“Baztertu egingo dira, eskaintako edozein prezioetan, lizitazioaren gehieneko prezioa gainditzen duten eskaintzak”**.

Ildo beretik, ezaugarrien taulako 19.2 atalak ezartzen duenez, **“edozein kontzeptutan eskaintako prezioetako bat lizitaziokoa baino handiago bada, enpresaren proposamena osorik baztertuko da, eta, beraz, lizitaziotik kanpo geratuko da”**.

Aurreikuspen horiek argiak badira ere, ezin da esan errekurtsogileak eskaintako prezioak oinarritzen direnik kontratazioa justifikatzeko memoriaren I. eranskinean, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua kalkulatzearren, egindako zenbatespenetan. Memoriaren eranskin horretan, honako hau adierazten da: **“Kontratua 2022an formalizatzen denetik 2023ko ekainaren 30era arte gauzatuko da, eta aurrekontuaren banaketa kontratuaren iraunaldi honetan, kanpainarako ekoitzi beharreko edukien estimazioaren arabera kalkulatu da. Horrela, % 80an finkatu da 2022rako eta % 20an 2023rako. Banaketa hau zenbatespen bat da, eta kontratuaren iraunaldian Departamentuak enpresa adjudikaziodunari adierazten dizkion beharren arabera izango da”**.

Errekurtsogileak orain justifikatu egin nahi ditu eskaintako prezioak, eta argudiatu du prezio globalak direla, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua kalkulatzeko memorian zenbatetsitako unitate kopuruan oinarritutakoak, baina, argudio horrek ez du indargabetzen prezioak IX. eranskinean jasotzean nabarmen bete ez izana baldintza agirietan xedatutakoa.

*teniendo en consideración una estimación de unidades orientativa.*

[...]

*Dichos precios unitarios corresponden a cada una de las piezas o materiales para su distribución a los soportes publicitarios que correspondan, incluyendo en el mismo la creatividad, diseño, producción e impresión, cuando así proceda, hasta su entrega para el soporte que se requiera, según desglose que se indica a continuación: [...].”*

La oferta económica debía ajustarse al modelo que figura como anexo IX del PCAP, en el que los licitadores debían rellenar una casilla denominada **“Oferta precio unitario (IVA no incluido)”**. En el propio anexo IX se destaca en negrilla lo siguiente: **“Serán rechazadas las ofertas que, en cualquiera de los precios ofertados, superen el precio máximo de licitación”**.

En el mismo sentido, el apartado 19.2 del cuadro de características establece que **“si uno de los precios ofertados de cualquiera de los conceptos excede del de licitación, la propuesta de la empresa se desechará en su totalidad, quedando, por tanto, fuera de la licitación”**.

Frente a la claridad de estas previsiones no cabe oponer que los precios ofertados por la recurrente se basan en las estimaciones realizadas en el anexo I de la memoria justificativa de la contratación con el fin de calcular el presupuesto base de licitación. En ese anexo de la memoria se advierte lo siguiente: **“La distribución del presupuesto durante la ejecución del contrato, que se ejecutará desde su formalización en 2022 hasta el 30 de junio de 2023, se ha calculado en función de la estimación realizada de contenidos a producir para la campaña. Así, se ha fijado en un 80% para el 2022 y un 20% para el 2023. Su cuantificación es una estimación y estará subordinada a las necesidades que el Departamento manifieste a la empresa adjudicataria a lo largo de la duración del contrato”**.

La recurrente pretende ahora justificar los precios ofertados alegando que se trata de precios globales basados en el número de unidades estimadas en la memoria para calcular el presupuesto base de licitación, pero ese argumento no desvirtúa el hecho de que al consignar los precios en el anexo IX incurrió en un evidente incumplimiento de lo dispuesto en los pliegos.



Hala ere, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartutako Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamenduaren 84. artikulua eta AKPAren 21.3 klausularen arabera, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena baldin badago, mahaiak baztertu egingo du, arrazoitutako ebazpen baten bidez.

Hala egin zuen kasu honetan kontratazio mahaiak, baldintza agiriek argi eta garbi ezartzen dutenari hertsiki jarraituz, eta horregatik ezetsi egin behar da errekurtsoa.

**ZORTZIGARRENA.-** Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileari isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Horren arabera, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

### **ERABAKITZEN DU**

NU COMUNICACIÓN SLL enpresak kontratazio arloan aurkeztutako errekurtso berezia ezestea.

SPKLk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Ahora bien, a tenor del artículo 84 del Reglamento de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, y de la cláusula 21.3 del PCAP, el error manifiesto en el importe de la proposición determinará que la mesa la deseche en resolución motivada.

Así lo hizo en este caso la mesa de contratación, ateniéndose estrictamente a lo que con toda claridad establecen los pliegos, razón por la cual el recurso debe ser desestimado.

**OCTAVO.-** No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

### **ACUERDA**

Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por NU COMUNICACIÓN, S.L.L.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2022ko ekainaren 20a / San Sebastián, 20 de junio de 2022.**